



## **Hernani BHI-ko irakasle eta zuzendaritzaren lan proposamena:**

### **Sarrera:**

Hamabost hilabeteko ibilbidea egin ondoren Hernaniko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeen Bilguneak dokumentu bat adostu zuen ikastetxeetan aurkeztu, eztabaidatu eta dokumentu horren ildo nagusiak kontuan izanik bateratzea onartzeko. Orduko Ikastetxeko zuzendaritzak eta bilgunean lanean jardun zuten irakasleek eta gurasoak ikastetxeko estamentu ezberdinetan informazioa zabaldu zuten eta azkenik, 2007ko ekainaren 27an ikastetxeko Organo Gorenak baiezkoa eman zuen.

Bateratzearen zergatiak hilabete haietan eta ondoren ere (Plan Estrategikoa, Urteko Kudeaketa Planak, zuzendaritza berriaren proiektua ...lantzerakoan) kontuan izan dira eta une honetan batzuk gogora araztea egokia litzateke:

- Bigarren hezkuntzako lau ikastetxeak bakar batean biltzeko Hernani herriko gazteen eta zentro horretan bilduko den komunitatearen kideen arteko harremanak, integrazioa eta kohesioa ditu helburu...
- Eskaintza oso, bateratua kalitatezko eta erakargarria herrian bertan gauzatzen dela ikusteak, beste herritara eta hiriburura joateko joera saihesten lagunduko du. Bertan egongo baita asebetetzerik bertako ikasleen trebakuntzak eta heziketa premia eta eskaria.
- Egitasmo bera, lau HEZKUNTZA proiektu, lau ikastegi, heziketa garatzeko lau modu biltzeko ahalegin hau, aukera ezin hobea da pedagogia azterketa serio bat birplanteatzeko.....
- Denok lau ikastetxeetan dugun hoberena aitortu eta abiapuntu gisara hartuz, elkarrekin zerbait berria eraikitzeko bidea emango digu egitasmo honek.
- Proiektu honen eraikuntzan denon parte artesa ezinbestekoa izango da. Lau ikastetxeko gurasoak,ikasleria, irakasleak eta ez dozentek.
- Proiektu integratzailea izango da: denon ekarpenak, denon tradizioak ...
- Berrikuntzari irekia. Metodo bakar, unibertsal eta egonkorra bilatu beharrean, dinamika ikertzaile eta berritzaile izango dena.
- Eskaintza akademiko bateratua eta zabalagoa izango da. Aberatsagoa, ibilbide formatibo guztiak, hautazko eskaintza anitza. Eskaintza zabala izanik, ikasleek eta familiek laguntza izango dute bere ikasketak kudeatzeko, laguntza pertsonala, orientazio zerbitzua...



Institutuan, Hernaniko DBHaz gain beste batzuk ere biltzen ditugu eta ez diogu antzeman inoiz, inongo arazorik. Ikastetxe guztietako ikasleak fusionatzen dira modu natural batean.

Bestalde, 2009ko martxoa / apirilan egindako bileretan Administrazioak bateratzearen berri eman zigun eta horrela zabaldu genuen ikastetxean.

### **Administrazioarekin izandako bileraren ondoren**

Hezkuntza sailarekin 2009ko azaroaren 17an izandako bileretan bi etxeko lan agindu zizkiguten:

1. **Fusio prozesuan** sustatzaile izatea:
  - LAN proposamena gure komunitatean zabaldu
  - Fusioa burutzeko ideiak, zalantzak bildu eta delegaritzara luzatu
2. Heziketa zikloak sendotu, **ziklo berriak** ezartzeko ikerketa lana egin, egun dauden beharrei erantzuna emateko.

**Ikastetxeko estamentu ezberdinetan informazioa zabaldu ondoren, bertan jaso ditugun kezka, galdera, beharrak... aztertu ondoren, Bateratzeari dagokionez proposamen hau luzatzen dugu:**

### **2010-11 ikasturterako matrikula bateratua ondorio guztiekin.**

Otsaila ekaina bitartean lan batzordeak proposatzen dira:

- **Batzorde pedagogikoa**: mintegiak, ekipoak, orientatzaileak, tutoreak...lehen harremanak, programazioak aztertu, minimoak adostu, edukiak, metodologia, ebaluazio sistema, gaitasunak, jarrerak... Lan egutegia adostu.
- DBH-ko, 1. zikloko irakasleak otsaila- ekaina bitartean biltzeko ordu lektiboak libratzeko liberazio orduak eskatzen dira.
- DBH-ko 2. zikloko eta Batxilergoetako irakasleen arteko bilera otsaila-maiatza bitartean lehen urratsak emateko.
- **Zuzendaritza batzordea**:
  - Matrikula 2010-11: nork kudeatuko du?, non egingo da...
  - Datorren ikasturteko plangintza: DBH ekainan / Batxilergoak eta Heziketa zikloak uztailan. Ordu liberazioa beharko da. Aurten leku aldatze lehiaketan DBH eta Batxilergoan plazak ez ateratzea proposatzen da.
  - Azpiegiturak: eraikin berrien jarraipena: beharrak, lanak, administrazioarekin harremanak...planoak, bozetoak, maketak... ikusgai jarri eta proposamenak egiteko aukera utzi.
  - Langile ez irakasleen beharren azterketa.
  - Zuzendaritza berri baterantz: Zuzendaritzaren osaketa: orainarteko zuzendaritza antolaketa mantentzea zuzendari orokor, nagusi batekin. (Orain dauden azpi-zuzendaritzak mantentzea egitura bezala).
  - Hizkuntza Normalkuntza proiektua. Egindako diagnosiaren ondorioak aztertu eta proiekturako lehen urratsak eman.
  - Kalitate kudeaketa
- **Gurasoen batzordea**: Gurasoen partaidetza eta guraso elkartearen elkarlana.